

ATEJOKA 010

EKAINA JUNIO JUN 2009

ANGEL ARBONIES

“Berrikuntza ez da berebiziko ideia edo asmakizunen bila ibiltzea, buru argiz erakunde sortzaileak eratzea baizik”

Angel Arboniesek antolaketa era berriak ikertu eta ezartzen lan egiten du. Azken urteetan, Ezagueraren Clusterra eta Mondragón Innovation and Knowledge kudeaketa alorreko ikerketa zentroa sustatu ditu, Zientzia eta Teknologia alorreko Euskal Sareko ikerketa zentroen eta Mondragón Cooperación Cooperativa kooperatiba-elkartearen barruan. Gaur egun berrikuntza alorreko Zuzendari Teknikoa da Garaia Berrikuntzagunean, Euskadiko Infonomia arduraduna eta aholkulari independentea berrikuntza alorrean. Hainbat liburu ere idatzi ditu: Nuevos enfoques en la innovación de productos para la empresa industrial (1993); Cómo evitar la miopía en la Gestión del Conocimiento (2001); De la e-mpresa jurásica a la empresa e-volucionada (2003); Conocimiento para innovar (2005); Innovación o Evolución (2007).

Berrikuntza zehaztu behar bazenue, zehatz-mehatz zein hitz erabiliko zenituzke?

Berria ez den zerbait izan daiteke berrikuntza, eta, bestalde, gauza berri guztiak ere ez dira berrikuntzak. Berrikuntza lehen ez zegoen lekuan balio ekonomiko eta sozial berria sortzea da, eta berrikuntza kudeatzea, berriz, ideia bati edo (gehienetan) ideia hibridatuen multzoari balioa sorrarazten dieten jarduerak kudeatzea da. Berrikuntza ez da berebiziko ideia edo asmakizunen bila ibiltzea, buru argiz erakunde sortzaileak eratzea baizik.

Berrikuntza alorrean ematen ari diren pausoak direla-eta, beste herrialde batzuekin alderatuta Euskal Autonomia Erkidegoa egoera onean dagoela esango al zenuke?

Nahasketa handia dago eta zientzia, teknologia eta berrikuntza fardel bakarra bailiran parekatzen dira. Iritsi da, ordea, hirurak bereizi eta politika ezberdinak egiteko garaia. Zientzia eta teknologiaren zati bat publikoak izan behar dute; berrikuntza, aldiz, enpresa-arlokoa eta kudeaketarako gaia izan behar du. Hala ere, berrikuntzaren kudeaketari ez dio inork jaramonik egiten.

Mundu guztiak bizia salbatuko dion flotagailutzat hartzen du berrikuntza, baina gutxi dira berrikuntzarako egiturak sortzen dituztenak, eta hori benetan zoritarrekoa da.

Ezagueraren gizartean gaude eta enpresak kopuru handitan ekoizteko diseinaturik ditugu. Antolaketa era berriak behar ditugu.

Zein da berrikuntzaren etorkizuna?

Berrikuntzaren etorkizuna berrikuntza irekia da, eta egitura eskuin-ezkertiak izatea, den-dena lankidetzaren ezaugarriean. Berrikuntza irekia, ustiaketarako nahiz berrikuntzarako zuzendariak izango dituzten sare eta egitura eskuin-ezkertietan. Eta, irabaziak handitzea ez, baizik lankidetzaren bitartez arriskuak txikitzea buruan izanez beti.

Zure ustez, pertsonak, enpresek eta erakundeek behar adinako berrikuntzak egiten al dituzte? Zer nabarmendu beharko litzateke?

Ez. Enpresek eta erakundeek urrezko pipita, berriro burua nekatu eta era automatizatuan ekoizten aritu behar izatetik behin betirako salbatuko dituen zerbait, aurkitu nahi dute. Baina halakorik ez da gertatuko edo oso-oso gutxitan gertatuko da. Funtsezkoena malgua izan eta aldatu ahal izateko antolatzea da. Denek dute berrikuntzaren premia bizirauteko, baina



batzuek kudeaketaren bitartez, arintasunez egiten dituzte berrikuntzak; beste batzuek, berriz, krisialdi pertsonalak eta instituzionalak igaroz bakarrik.

Ezaguera gure baitan dugun zerbait bezala ez, baizik eta egiten dugun zerbait bezala, ezaguera berria sortzeko, berrikuntzak egiteko ekintza modura, interesatzen zaizula diozu.

Niretzat ezaguera ezagutza eta ekintza da. Ezagutza jakituria-pilaketa den bitartean, ekintzaren bidez ezaguera berria sortzen dugu. Ezaguera ekintzaren bitartez adierazten da.

Nolakoa da berrikuntzak egiten dituen pertsona?

Egiten duena eta ikusten duena zalanztan jartzen dituen pertsona egonezina da berritzailea.

Berrikuntzari buruzko elkarrizketetan, energia gehienak ezarritakoaren alde egiten xahutzen dira. Berritzaileen egoera oso kaxkarra da erakundeetan, gaur egun diseinaturik ditugun moduan.

Nola ikusten duzu etorkizuna? Baikorra al zara?

Baikorra naiz, baina trakzio-lanak egingo dituzten euskal erakundeak ahalik eta azkarren ikustea gustatuko litzaidake, ez I+G alorrean, berrikuntza alorrean baizik, eta ez arrakasta duten produktuetan, berrikuntzaren kudeaketa osoan baizik; ea horrela ereduaz zabaldu eta bete-betean berrikuntzarako ezagueraren kudeaketan murgiltzen garen.

Teresa Sala

Elkarrizketa osoa: www.euskonews.com/489zbn/

La entrevista completa está disponible en euskera y castellano en la dirección mencionada.

JOSÉ M^A MUÑOA

Europa, auzolan soziala eta balioetakoa

Marc Augé frantziar antropologoak ez-lekua (*non-lieu*) kontzeptua sortu zuen gizarte-bizitazaroko beharrezkoak diren lekuei buruz aritzeko; izan ere, gure egunoroko paisaiaren zati nabaria dira, baina ia ez dute sortzen lotura emozional edo sinbolikorik: bulego publikoak, hipermerkatuak, hotelak, garraioak, aireportuak...

Ziur asko biztanle gutxiren buruan Europar Batasuna politikaren *non-lieu* da: agian ezinbesteko instantzia da, baina iragangaitza; gerta daiteke materialari dagokionez onuragarria izatea baina emozionalki baino gehiago arrazionalki identifikatzen gara harekin, gure gertuko herri edo komunitatearekin gertatzen denaren kontrakoa, hain zuzen ere. Horregatik, ez-leku hori eraikitze auzolan handian parte har dezagun deitzen gaituztenean, gogoia aski eskasa izan ohi da.

Ez dut emango egoera horren arrazoi berri eta are gutxiago arduradunak bilatuko. Askoz ere onuragarriagoa, eta batez ere erabilgarriagoa da gure herri eta nazioen komunitate handi horren esanahi sakonari buruz galdetzea, eta handik gero eta bidezkoagoa, solidarioagoa eta iraunkortasunari dagozkionez oparoagoa den mundu batera aurrera egiteko nola lagun dezakegun ikustea. Horrela, guztiok eroso egongo gara.

Europa "espirituaren kontinente" gisa definitu dute, edo nahiago bada "balioen kontinente" gisa. Bi definizio horiek elkarrekin bizitzeko espazioa

adierazten dute, eta xede nagusia etika printzipio eta eskubideen bidez objektibizitzea da. Ez gara ahaztu behar Giza Eskubideen Deklarazioaren, humanismoaren eta demokraziaren sorlekua dela; han, tolerantzia erlijioso, justizia soziala, gutxiengoekiko errespetua eta aukera-berdintasuna banakoaren garapen librearen oinarriak dira. Europa balioen gordeleku paregabea da -akats guztiak barne-, eta balio horiek utopista edo abstraktua ez den, hots erreal eta eraginkorra den, europar idealismoa justifikatzen dute.

Aurrekoa kontuan hartzen badugu asetzen ez gaituzten Europako errealtate politikoaren zenbait alderdiaren aurrean agertzen dugun utzikeria edo frustrazioa gainditzen lagunduko gaitu. Garai zail hauetan bereziki komeni da Europaren garrantzia sozial eta etikoaz konturatzeko, belaunaldien orainaldirako eta etorkizunerako. Hein handi batean, gero eta bidezkoagoa, sozialki kohesionatuagoa, demokratikoagoa, kulturalki aberatsagoa den eta printzipio sendoetan oinarrituta dagoen Europa baten sendotasunak mugatuko duelako etorkizuna. Inoiz baino gehiago behar dugu fundamentalismoak, bazterkeriak, ustiapenak, baliabideak suntsitzea eta harrapatzeko askatasun gisa hartutako askatasuna baztertzeko duen Europa. Horretarako erakunde sendo, sinesgarriak eta eraginkorrak behar ditugu. Eta Europa hori ez da berez eraikiko; guk geuk sortuko dugu edo ez da egongo. Eta euskaldunok ez gara atzean geratu behar auzolan horretan, sortu zenetik parte hartu baitugu.


Eusko Ikaskuntzak zenbait urte daramatza euskal erkidegoek aurre egiten dieten ekonomia-, gizarte-, ingurumen- eta kultura-erronka handietan lan handia egiten, Europako testuinguruan benetako aurrerapena lortzeko helburuekin bat. Horrela, 2003. urtetik honetan dihardu Elkarrekin: enpresaren, mugikortasunaren, hezkuntzaren eta bestelako arlotan Garapen Iraunkorra zer izan behar denaren deskribapen zehatza egiten ari da; gutxira arte itxita egondako gizarteak eraldatzen ari den migrazio-fenomenoari buruzko gogoetak eta gaur egungo euskal errealtatera molda daitezen sustatzen du; kultura eta hizkuntza aniztasunei buruzkoak; nortasun konplexuei eta erkidegora atxikitze sentimendu aldakorrei buruzkoak; gure iragana eta guztiok partekatutako etorkizuneko proiektu bat lotzen duten adierazleak bilatzeari buruzkoak.

Esfortzu horiek *Gizarte Garapen Iraunkorrerako Berrikuntzari* buruzko Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresuan bateratuko ditugu, datorren udazkenean egingo dugun nazioarteko foroa dena. Kongresu horrekin, duela 90 urte baino gehiago sortu zenetik egindako lan guztiakin bezala, Euskal Herriak etikaz eta zentzuz beteriko Europako proiektu horretan aktiboki parte hartzea da Elkarrekin xedea. Gure herria kontinentearen funtsezko naturan dauden giza balio horretaz hornitzea da asmoa.

Euskaldunok Europa *non-lieu* gisa ikusteari uzten lagundu behar dugu; bizitzeko benetako leku gisa agertzea nahi dugu, bakoitzak ahal duen beste garatzeko aukera izan dezan. Hartarako, kanpokoarekin konpromisoa hartu behar dugu eta gure barneko bizikidetzaren kalitatea handitu behar dugu.

Paperetik sarera

www.euskomedia.org



Antxon Aguirre

SEV = Sociedad de Sabantares Milcos

En mayo culminó la primera fase del proceso de canonización de José M^a Arizmendiarieta, impulsor del movimiento cooperativista mondragonés. A la vaticana Congregación para la Causa de los Santos encargada de examinar el expediente de canonización quizá le ayude saber que Eusko Ikaskuntza ha puesto en red todo el legado documental de Arizmendiarieta: casi 11.000 archivos con pensamientos, notas, fotos más dos biografías. En una de estas, *El hombre cooperativo* de Joxe Azurmendi, encontramos esta frase escrita por el sacerdote de Markina: "Dios nos quiere santos. Pero sería fanatismo y violentarnos tratar de ser santo 100 % desde hoy. (...) Lo que Dios nos pide es que

estemos de camino de la santidad y que avancemos al ritmo debido". Este mes colgamos ese interesante libro en nuestra ventana ATEJOKA de www.euskomedia.org.

De un caso de santidad pasamos a otro de condenación. Pues se cumplen 400 años de la trágica batida contra *la brujería de Pierre de Lancre* en Laburdi. Para conocer con más detalle quién era aquel magistrado de origen vasco, las causas que motivaron la sangrienta expedición de 1609 y sus consecuencias, entrevistamos por radio a la especialista Elisabeth Zubillaga. Un cuarto de hora de grabación que esclarece las claves de aquella "caza de brujas".

Con motivo del Foro Europeo de Energías del Futuro, varios centenares de empresas y líderes mundiales se han dado cita en el BEC de Barakaldo en busca de soluciones de futuro a las necesidades energéticas. Sobre este tema Eusko Ikaskuntza trabaja desde hace años. Quien entre en la web del Programa Emblemático *BAI-Progreso Genuino y Duradero* podrá leer un muy documentado informe realizado por el socio Gorka Bueno, profesor de la UPV, titulado "La grave dependencia energética de Euskal Herria".

Gracias a la sección "Artisautza" de *Euskonews* hemos conocido a un

personaje singular: **José Iglesias**, orensano de cuna pero afincado en Zarautz desde 1951. Hijo y nieto de afiladores y vaciadores, José es un pozo de sabiduría popular. Se enorgullece de que sus hijos hablen euskera, gallego y español, pero le apena que se esté perdiendo el barallete, la jerga de los oficios ambulantes galaicos. Entre sus cerca de mil palabras no pocas nos sonarán familiares: *ardo* (aguardiente), *sua* (fuego), *Aberria* (Asturias). ¿Sabe cómo se diría Sociedad de Estudios Vascos en barallete? *Sociedad de Sabantares Milcos*.

Hastrocho el otro rabón: o sea, hasta el mes que viene.

MAÏTÉ LAFOURCADE*

La résistance des Basques à la pénétration du Droit romain

Dès leur apparition dans l'Histoire, on voit les Basques, formant un peuple différent des autres, lutter pour conserver leur organisation ancestrale. Ils ne se sont pas laissés influencer par les civilisations étrangères qui ont traversé, voire séjourné sur leurs terres. Ils n'ont pas davantage sacrifié à la mode du droit romain qui, découvert à Bologne à la fin du XI^{ème} siècle, s'est fait envahissant, modifiant partout la tradition juridique populaire.



Ce droit savant, individualiste et bourgeois, ne convenait pas à une population rurale. La conception basque du droit de propriété subsista ; la propriété basque était collective, indivise entre les membres d'une même famille comme entre les habitants d'une même communauté. Dès lors, les propriétés familiales étaient indisponibles, sauf cas exceptionnels, et indivisibles.

Le patrimoine familial avait un gérant à chaque génération, l'aîné des enfants, homme ou femme, sans distinction de sexe. Ses droits sur le patrimoine n'étaient pas ceux d'un propriétaire tel que nous le concevons de nos jours ; il n'avait que l'administration et la responsabilité des biens et des membres de la

famille, vivants et morts, sans pouvoir en disposer. Lorsqu'il se mariait et que son conjoint portait une dot à ses père et mère, le jeune couple était fait « coseigneurs » du patrimoine familial, désormais géré par les deux couples, « maîtres vieux » et « maîtres jeunes », qui avaient des droits égaux. La même égalité existait à l'intérieur du couple, l'avis de la femme pouvant même prévaloir sur celui de son mari quand elle était l'héritière.

L'incapacité juridique de la femme mariée, introduite en France au XVI^{ème} siècle et qui subsista jusqu'en 1938, n'avait pas pénétré en pays basques, ni l'autorité maritale, ni la *patria potestas*, aucune des institutions romaines.

La même égalité régnait entre les maisons, dans l'organisation politique. Les notions romaines d'État et de Souveraineté étaient inconnues, de même que l'organisation de la société en trois ordres sociaux. Les clercs et les nobles étaient exclus de la vie politique. Le régime politique était une démocratie directe à base familiale. Le pouvoir de décision appartenait aux maîtres de maison qui représentaient leur maison. Chaque maison ayant une voix, quelle que fut son importance. La décision était prise à la majorité et devenait la loi de la communauté.

Chaque communauté déléguait un mandataire, muni d'un mandat impératif, à l'assemblée générale du pays : Biltzar en Labourd, Silviet en Soule, Cour générale de chacun des sept pays ou vallées en Basse Navarre. Après avoir entendu les propositions du syndic, ainsi que ses explications et commentaires, les mandataires revenaient dans leur communauté ou paroisse respective ; là, les maîtres de maison votaient et le résultat était ramené à une deuxième session de l'assemblée générale où chaque communauté avait une voix. La décision, prise à la majorité était la loi du pays.

Les Basques semblaient ne suivre que celle-là ; dans les procès verbaux du Biltzar, on peut lire, en parlant d'une décision royale, qu'elle « n'a pas eu son exécution ». Les provinces basques françaises jouissaient d'une réelle autonomie administrative au sein du royaume de France.

Mais, sous l'influence de la noblesse toute puissante en Soule et en Navarre, le Silviet souletin fut supprimé en 1730 et remplacé par des États provinciaux, comme en Basse Navarre où les trois ordres étaient représentés et les élus du tiers, en nombre réduit, ayant un mandat représentatif, supprimant ainsi toute consultation populaire. Seul, le Labourd continua à se battre, jusqu'à la Révolution de 1789 qui anéantit tous les privilèges. Les provinces basques furent alors, de force, intégrées à l'État français ; les populations furent soumises à un droit unique, le droit français, individualiste et bourgeois, très romanisé, aux antipodes du droit basque.

Lafourcade, Maïté : « La résistance des Basques à la pénétration du Droit romain. L'exemple du Pays basque de France ». – En : *Revista Internacional de los Estudios Vascos, RIEV*, 52, 1 (2007). – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007 ; 81-94 pp.

* Membre d'Eusko Ikaskuntza.

Gertatu zen

Euskal Unibertsitateak Por la Universidad Vasca Pour l'Université Basque

La Junta Permanente de Eusko Ikaskuntza del 27 de junio de 1919, se hizo eco del “anhelo por una Universidad Vasca que se manifiesta ya con carácter general y cada vez más apremiante”. Para conseguir “por todos los procedimientos y medios legales” esa aspiración, la Junta acordó “gestionar activamente de las cuatro Diputaciones Vascas el mutuo acuerdo para el establecimiento en el País de una Universidad



que pudiera alcanzar gran florecimiento y esplendor”. Al mismo tiempo se iniciaría la redacción de un Estatuto para su posterior presentación ante las autoridades ministeriales.

Irakaskuntza eta hizkuntza
Urte hartako, 1919, udaberrian Bizkaiko udalerrri guztietara galdesorta bat igorri zuen Eduardo Landetak lehen hezkuntzako ikastetxeei buruz. Izan ere, zerbitzuak gabeziak zituela uste zen irakasleen bitarteko izaeraren eta lekualdaketen ondorioz. Ekainean Batzorde Iraunkorrari jakinarazi zitzaion erantzun asko jaso zirela



Eduardo Landeta

eta oztopo horien irtenbideak aurkitzeko lanean hasteko moduan ginela. Era berean, jakin genuen Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek onartu zutela “Euskal Hizkuntzaren Akademia edo Erakundearen Araudi Proiektua”. Erakunde hori eratzeko, beraz, Arabako eta Nafarroako Foru Aldundien adostasuna falta zen.

Activité au siècle

Les bureaux d'Eusko Ikaskuntza au Palais de la Députation de Donostia furent “décorés avec les soleils du fondateur de l'Université d'Oñate, recueillis par la société Economique des Amis du Pays durant les travaux



de l'année dernière et cédés à la Société d'Etudes Basques”. En même temps qu'il commençait à recevoir la correspondance envoyée depuis les maisons basque d'Amérique “et des braves colons de l'Ouest des Etats Unis”, le siège d'Eusko Ikaskuntza était fréquenté par les personnalités liées à la culture et à la science qui visitaient le Pays. Ce fut le cas de l'anthropologue polonais Eugeniusz Frankowski, de l'archéologue catalan Pedro Bosch Gimpera, du folkloriste anglais Hildeburgh ou du professeur de l'Université Grégorienne de Rome Nemesio Güenechea.

Kultura Ereileak

Ortzadar Elkarte

ORTZADAR Elkarte 1974. urtean sortu zen Iruñean Dantzari Talde baten egiturarekin. Duela bi urte Dantzari Taldearen izaerari utzi eta Elkartearena hartu zuen, bere xedeak hobeki beteko zirelakoan. Aldaketa honekin batera egoitza berria erosi zen, eta bertan Elkarteak ekintza gehienak burutzen dira. Egoitza Iruñeko Arrotxapea auzoko Arga ibaia zeharkalean dago.

Helburua

Elkarteak Dantzari Taldeak zeuzkan helburu berberak jasotzen ditu: euskal folklorea, eta batik bat dantza, musika eta herri kantari lotutako gaiak jorratu, ikertu eta zabaltu. Ortzadar irabazi-asmorik gabeko elkarte independentea da, baina Eusko Ikaskuntza eta Euskal

Dantzarien Biltzarreko kide da, besteak beste.

Ekintzak

Folklorean sustraituriko kultur ondarea ikertu eta zabaltzeko, garaian garaiko teknika eta tresna ezberdinak erabili izan dira. Dantzari dagokionez, ikerketa garrantzitsuena 1977-78 urteetan Nafarroako Erriberan egindakoa izan da. Bertan Erribera aldeko makil-dantzak edo *paloteauak* berreskuratu ziren, ordurako desagertuak. Ez zen, hala ere, ez lehendabiziko ikerketa, ez azkena izan: Behe Nafarroako Toberak adibidez; Erroibar, Aezkoa, Esteribar, Artzibar eta Arakalgo folklorea; eta Nafarroako jai-



folklorea eta folklore etnomusikologikoaren Diagnostia Ikerketa kanpainak ere burutu izan dira urte luze hauetan. Ikertutakoaren dibulgazioa da xedearen bigarren betekizuna eta.

Ekintza arloak

Dibulgazioaren helburua lortzeko Ortzadarrek hainbat ekitaldi mota eskaintzen ditu. Batzuk dantza eta herri-musikarekin zerikusi zuzena daukatenak: emanaldiak, dantza eta musika zein musika-tresnen ikastaroak, etab. Beste batzuk folklorea bera daukate aztergai. Honetan garrantzitsuenak Folklore Jardunaldiak dira, baina ezin ditugu ahaztu ikastaro monografikoak, erakusketak, hitzaldiak...

Programa

Aurten, Ortzadarrek 35 urte bete duela, ohiko jardunaren gain beste ekintza batzuk prestatzen ari da data ospatzeko. Besteak beste, Folklore emanaldi batzuk, argazki erakusketa bat, kantu afaria, festa-eguna dira nabarmenenak. Ospakizun honekin batera, Folklore Jardunaldiek beren 25. urteurrena ere bete dute eta *Tradizioa eta sorkuntza* gaia jorratu da, *Sormen Tailer* batez lagundurik. Urtean zehar burutzen ari den pandero ikastaroaz aparte, ohiko dantza eta musika emanaldiak, eta *Materiarik Gabeko Ondarea*. *Lantz, Ituren eta Zubietako inauteriak* erakusketa dira aurten Ortzadarrek eskaintzen dituen ekintza nabarmenak.

Harremana

www.ortzadar.org
ortzadar@ortzadar.org

Argitalpenak



Iura Vasconiae, 5

AUTORES: GREGORIO MONREAL ZIA ET AL.
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN: FEDHAV, 2008
421 P. : IL. ; 24 CM.
ISSN: 1699-5376

El número 5 de *Iura Vasconiae*, Revista de Derecho Histórico y Autnómico de Vasconia recoge las ponencias presentadas en la Jornada 500 Aniversario de la promulgación del Fuero de las Encartaciones organizada en 2003 por el Instituto de Derecho Histórico de Vasconia de la UPV/EHU y la Mancomunidad de las Encartaciones. Participaron como ponentes Gregorio Monreal, Ana M^a Barrero, Beatriz Arizaga, Sergio Martínez, Juan Manuel González Cembellín y Fernando Martínez Rueda. En el apartado de *Varia* se incluyen artículos de Juan de Churruca Arellano, Xabier Zabaltza Pérez-Nievas y Fco. Javier Fresán.



Breve Historia de la Guerra Civil Española

AUTOR: IÑIGO BOLINAGA
MADRID: EDICIONES NOWTILUS, 2009
351 P. : IL. ; 19 CM.
ISBN: 978-84-9763-579-0

Este libro se detiene en los elementos más importantes para entender los procesos políticos y militares de la Guerra Civil Española, poniendo el acento en la comprensión del cómo y del por qué ocurrieron. Iñigo Bolinaga, con su habitual estilo ameno y didáctico, describe los factores tanto económicos como políticos y militares imprescindibles para el análisis y la comprensión de la contienda que marcó la historia de España. *Breve Historia de la Guerra Civil Española* es un libro imprescindible para todo aquel que quiera tener un conocimiento global del conflicto español.



El sector agrario guipuzcoano y las políticas provinciales durante la Restauración

AUTOR: PEDRO BERRIOCHOA AZCÁRATE
DONOSTIA: DIPUTACIÓN F. DE GIPUZKOA, 2009
558 P. : IL. ; 24 CM.
ISBN: 978-84-7907-612-2

Pedro Berriochoa, licenciado en Historia y en Antropología, presenta en este libro su proyecto de fin de carrera en Ingeniería Técnica Agrónoma. Su objeto es la política agraria de la Diputación guipuzcoana durante la Restauración (1876-1923); los dos primeros capítulos están dedicados, respectivamente, al contexto histórico y al contexto sectorial agropecuario; el tercero se ocupa del largo proceso de reformas iniciado a mediados del XIX y que culminan en el cambio de siglo. En el apartado de anexos se reproducen documentos que pueden servir a la realización de nuevos trabajos.



Bat. Soziolinguistika Aldizkaria, 70 zenb.

EGILEAK: IÑAKI AGIRREAZKUENAGA ET AL.
ANDOAIN: SOZIOLOGIA KLUSTERRA, 2009
164 OR. ; 26 CM.
ISSN: 1130-8435

Bat soziolinguistika-aldizkariaren 70. aleak, "Euskararen legeak" izenburu aduen txosten interesgarria dakar, Asier Basurtok aurkeztua. Sei artikulutan ikusuntu desberdinetatik aztertzen da euskararen errealitate administratibo eta juridikoa. Hauek dira egileak: Iñaki Agirreazkuenaga, Battittu Coyos, Julen Urbiola, Paul Bilbao, Erramun Osa eta Mikel Irizar. "Gurean" atalean Vicente Partal, Itziar Elortza, Erramun Osa, Fermin Lazkano eta Lionel Jolyren ekarponak jaso dira. Azkenik, Andoni Barreñak Belen Uranga eta Maider Marañaren *Hizkuntzen Etorkizuna* liburua xehe aztertzen du.



Argitaratzailea
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia,
Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA.

Argitalpen Idazkaria
Eva Nieto

Argazkiak
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artziboa.

Harpidetzak
Atejoka etxean jaso nahi baldin
baduzu, idatzi edo egin ezazu
elbide hauetara:

Eusko Ikaskuntzako
Bulego Nagusiak
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-310855
Fax 943-213956
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

Arabako Bulegoa
General Alava, 5-1º
01005 GASTEIZ
Tel. 945-231552
Fax 945-148752
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

Bizkaiko Bulegoa
María Díaz de Haro, 11-1
48013 BILBAO
Tel. 94-4425287
Fax 94-4414650
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

Nafarroako Bulegoa
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUÑEA
Tel. 948-22105
Fax 948-21717
iruna@eusko-ikaskuntza.org

Ordutegia
Astelehenetik ostegunera 8:30-14
eta 15:30-17:30; ostirala, 8:00- 15:00

Horario
De lunes a jueves de 8.30-14 y de
15:30-17:30; viernes de 8.00-15.00

Iparraldeko Bulegoa
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 559598290
Fax 559461844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

Ordutegia
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12 eta
15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.
Du lundia au jeudi: 8:30-12:00 et 15:00-18:00
et le vendredi de 8:00-12:00.

L.G.: SS-1150-2008. ISSN: 1889-0342
Fotokomposaketa: Ipar SL
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga